



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN LEHEN MAILAKO SAREAREN KONTAGAILU-ZERBITZURAKO KONTAGAILU, KONTROL-EKIPO ETA MATERIALEN HORNIDURA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE ZK.: 3194

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Alejandro Garcia Alonso
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN LEHEN MAILAKO SAREKO KONTAGAILU-ZERBITZURAKO KONTAGAILU, KONTROL-EKIPO ETA MATERIALAK HORNITZEA

2.- Zer beharri erantzun behar zaion: Hornidura-sare nagusiko bolumena eta emaria neurtzeko ekipoak, hala fakturaziokoak nola kontrolekoak, modu mailakatuan ordezteko beharra dago, ekipoak matxuratu direlako edo bizitza baliagarria amaitu zaielako, bai eta zerbitzu honi lotutako kontrol-ekipoak ere. Halaber, beharrezkotzat jotzen da ekipo berriak erostea hargune berrietan fakturazioa gaitzeko, bai eta udalerriei eta industriei hornitutako bolumenak kontrolatzeko eta kudeatzeko ere. Horrek, gainera, intereseko gune estrategikoetan sarea gehiago kontrolatzea ahalbidetzen du.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Horniduraren unitate funtzionala eta operatiboa: Hainbat produktu-familia identifikatzen diren arren, elementu guztiak BBUPen kontagailu-parkeko sistema tekniko eta operatibo berari lotuta daude. Baterako kontratazioak elkarreragingarritasuna errazten du eta marka fabrikatzaile desberdinen osagaien arteko bateraezintasun-arriskuak murrizten ditu. Homogeneotasunaren eta bateragarritasun teknologikoaren beharra: Ekipoak eta osagarriak lehendik dauden instalazioekin eta aurrez ezarritako teknologiekin integratu behar direnez, funtsezkoa da koherentzia teknologikoari eustea, eta hori adjudikaziodun bakar baten edo loterik gabeko kontratu baten bidez egiten da. Kudeaketaren eta jarraipenaren sinplifikazioa: Kontratua hainbat lotetan banatzeak konplexutasun gehigarria ekarriko lioke horniduraren kudeaketa administratibo, logistiko eta teknikoari, bai eta bermeen jarraipenari eta ordezeko piezen trazabilitateari ere. Eskalako ekonomiak aprobetxatzea: Blokean kontratatzeak baldintza ekonomiko eta tekniko hobeak lortzeko aukera ematen du erosketak zentralizatzen baitira; izan ere, horniduraren kostu globalak murrizten dira, eta BBUPen baliabideak optimizatzen. Erantzukizunak sakabanatzeko



B.- KONTRATUAREN XEDEA

arriskua: Lotetan banatuz gero, zaila izan liteke hainbat adjudikaziodunek hornitutako produktuen artean gerta daitezkeen gorabehera edo bateraezintasunen aurrean erantzukizun teknikoak eta komertzialak zehaztea.

4.- CPV:

CPV kodea:38421110-6

Deskribapena: Emari-neurgailuak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko baldintzak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria.

6.- Izaera juridikoa

☒Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua

(BEZik gabe)

**EHUN ETA BERROGEITA BOST MILA
BEDERATZIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA
HIRUROGEITA HAMABI ZENTIMO (145.919,72)**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 321.023,38 euro

SPKLren 301.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, prezioa prezio unitarioen bidez zehazten den hornidura-kontratuan, hornitu beharreko unitate-kopurua kontratuaren prezioaren ehuneko 10eraino handitu ahal izango da, SPKL 9/2017 Legearen 205.2.c).3. artikuluan aipatzen den ehunekoraino, eta ez da beharrezkoa izango dagokion aldaketa-espedientea izapidetzea.

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2025: 221.99.16912 partida 72.959,86 €, BEZik gabe.

2026: 221.99.16912 partida 72.959,86 €, BEZik gabe

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI

☒EZ

7.- Ordaintzeko modua: BBUPeko kontratazio-organoak onartutako hileroko ziurtagiriak, hornitutako ekipoen kopuruaren eta motaren arabera, betiere dagokion hilabeteen horniketaren bat egin bada.

8.- Konturako ordainketak: Ez

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa



URTEBETE (1)

☐ BAI ☒ EZ☒ BAI ☐ EZ

URTEBETE (1)

4.- Bermealdia: URTE BATEKO (1) berme-epea ezartzen da, hornitu den egunetik aurrera, ekipamenduetan edozein motatako akatsak gertatzen direnerako. Kontratuaren irismenaren berezko eskakizunen barruan arazoren edo gabeziaren bat antzematen bada, kontratuaren zuzendaritzak haren berri emango dio kontratista adjudikaziodunari, eta kontratistak ahalik eta lasterren konpondu beharko ditu, bere kabuz, betiere adierazitako berme-epearen barruan.

5.- Kontratua exekutzeko tokia: Ur Partzuergoak lan egiten duen hainbat udalerri

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (145.919,72 €)

Azken hiru (3) urteetan zehar egindako hornidura nagusien zerrenda, kontratuaren objektuaren izaera bera edo antzekoa dutena, zenbatekoa, data eta hartzailea adierazita. Azken hiru urteetako zenbatekoen baturak 25.000 €-tik gorakoa izan beharko du.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailleek kontratua exekutatzen proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztiak barne, eta, ahal dela, jarraian adieraziko den hurrenkeran.

1. Hornidura-konpromisoa, agirian zehaztutako gehieneko entrega-epeetan oinarritua. Arestian deskribatutako epeak betetzea bermatzen ez den produktuei dagokienez (kontagailuak edo ordezkoko piezak), agirian zehaztutakoa baino baxuagoa izan beharko da, familiako haztapenaren ehunekoan banatzen denaren arabera. (5 puntu)
2. Produktuen kalitatea eta homologazioa (5 puntu)
 - Fabrikatzailearen ziurtagiriak.
 - Homologazio teknikoak eta indarrean dauden araudiak betetzea (UNE-EN, EBko zuzentarauak).
 - Zenbatetsitako bizitza baliagarria eta eskaintako bermeak.
3. Kontratua exekutatzen proposatutako antolamendu-egitura eta lantaldea (5 puntu)
 - Antolamendu-egitura eta langileen zerrenda, kontratistaren ordezkariak hasita behar dira.
 - Hornidurarako antolamendu-egitura, gaitasuna eta erantzuteko denbora (ordutegi arruntan, lanegunetan ordutegi arruntetik kanpo, igande eta jaiegunetan, aparteko beharrezko kasuan, larrialdietan, etab.)
4. Kontratua exekutatzen esleitutako bitarteko materialak (5 puntu)
 - Ibilgailuak, goragailuak barne (garabi-kamioia, 4x4 ibilgailuak, etab.), kontratuaren eskura eta kargurik gabe, banaketa hobetzen eta entrega-puntuetarako sarbidea bermatzen dutenak.
 - Fabrikatzaileekiko konpromisoak: fabrikatzaileekin sinatutako konpromisoa erantsi.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- Eskaintza ekonomikoa, honako taula hauen arabera



SUMINISTRO CONTADORES Y SERVICIOS ASOCIADOS							
FAMILIA	%PONDERACIÓN FAMILIA	COD	MARCA	% PONDERACIÓN MARCA/FAMILIA	% PONDERACIÓN (Pi)	%DESCUENTO OFERTADO (Di)	%DESCUENTO PONDERADO (DPi) (Calculado Pi*Di)
CONTADOR MECÁNICO TIPO WOLTMAN	5%	CTM-01	ELSTER - IBERCONTA	95%	5%		
		CTM-02	OTRAS MARCAS	5%	0%		
CAUDALÍMETROS ELECTROMAGNÉTICOS	40%	CTE-01	SIEMENS	75%	30%		
		CTE-02	KROHNE	20%	8%		
		CTE-03	OTRAS MARCAS	5%	2%		
CAUDALÍMETROS ULTRASONICOS	20%	CTU-01	ARAD - Conta za ra	55%	11%		
		CTU-02	SIEMENS	20%	4%		
		CTU-03	KROHNE	20%	4%		
		CTU-04	OTRAS MARCAS	5%	1%		
DATALOGGER	10%	DLG-01	MICROCOM	80%	8%		
		DLG-02	SOFREL	15%	2%		
		DLG-03	OTRAS MARCAS	5%	1%		
BATERIAS Y FUNGIBLES	5%	BAF-01	SIEMENS	25%	1%		
		BAF-02	KROHNE	25%	1%		
		BAF-03	MICROCOM	25%	1%		
		BAF-04	SOFREL	20%	1%		
		BAF-05	OTRAS MARCAS	5%	0%		
REPUESTOS VARIOS	5%	REP-01	ELSTER - IBERCONTA	15%	1%		
		REP-02	SIEMENS	15%	1%		
		REP-03	KROHNE	15%	1%		
		REP-04	ARAD - Conta za ra	15%	1%		
		REP-05	MICROCOM	15%	1%		
		REP-06	NIVUS	15%	1%		
		REP-07	SOFREL	5%	0%		
		REP-08	OTRAS MARCAS	5%	0%		
ACCESORIOS	10%	ACC-01	ELSTER - IBERCONTA	15%	2%		
		ACC-02	SIEMENS	20%	2%		
		ACC-03	KROHNE	15%	2%		
		ACC-04	ARAD - Conta za ra	20%	2%		
		ACC-05	MICROCOM	20%	2%		
		ACC-06	SOFREL	5%	1%		
		ACC-07	OTRAS MARCAS	5%	1%		
SERVICIO ASISTENCIA TECNICA	5%	SAT-01	SIEMENS	50%	3%		
		SAT-02	KROHNE	45%	2%		
		SAT-03	OTROS	5%	0%		
							TOTAL OFERTA(Σ Dpi)

Lizitatzailleek deskontua eskaini beharko dute tarifa ofizialari dagokionez epigrafe bakoitzeko (Di). Deskontu hori bider epigrafe bakoitzari dagokion haztapenaren ehunekoa (Pi) eginda lortuko da epigrafe bakoitzeko deskontu haztatua (DPi).

Eskaintza deskontu haztatu guztien baturarekin lortuko da (Σ DPi).

Eskaintza ekonomikoa lizitatzailleek epigrafe bakoitzean eskaintzen dituzten deskontuen arabera baloratuko da, haztapen-faktorearekin zuzenduta, jarraian erakusten den moduan.

Eskaintzak deskontu haztatu guztien baturaren arabera ebaluatuko dira (Σ DPi).

Deskontu haztatuen batura handiena duen eskaintzak (Σ DPmax) lortuko du gehieneko puntuazioa (Pmax = 80 puntu).

Deskontu haztatuen batura zero duen eskaintzak (Σ DP0) zero puntu lortuko ditu (P0 = 0).

Deskontu haztatuen batura duen edozein eskaintzak (Σ DPi) puntuazio bat lortuko du (Pi), honela: deskontu haztatuen batura handienari dagokion (Σ DPmax) gehieneko puntuazioaren (80) eta zeroren baliokidea den deskontu haztatuen baturari dagokion (Σ DP0) gutxieneko puntuazioaren (0) arteko interpolazio lineala eginez.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 80 PUNTU

Irizpide honetan 80 puntu emango dira gehienez.

Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik ekonomikoenari, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintza ekonomikorik txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari aplikatu beharreko puntu guztiak egitea.

Hau da:

$(Et / EI) \times z$

Non:

Et =eskaintza ekonomiko txikiena

EI =baloratzen den lizitatzaillearen eskaintza

z = irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntu kopurua.

BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK 20 PUNTU

- Hornidura-konpromisoa, agirian zehaztutako gehieneko entrega-epeetan oinarritua. Arestian deskribatutako epeak betetzea bermatzen ez den produktuei dagokienez (kontagailuak edo ordezeko piezak), agirian zehaztutakoa baino baxuagoa izan beharko da, familiako haztapenaren ehunekoan banatzen denaren arabera. (5 puntu)
- Produktuen kalitatea eta homologazioa (5 puntu)
 - Fabrikatzailearen ziurtagiriak.
 - Homologazio teknikoak eta indarrean dauden araudiak betetzea (UNE-EN, EBko zuzentarauak).
 - Zenbatetsitako bizitza baliagarria eta eskainitako bermeak.
- Kontratua exekutatzeke proposatutako antolamendu-egitura eta lantaldea (5 puntu)
 - Antolamendu-egitura eta langileen zerrenda, kontratistaren ordezkariak hasita beheraka.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Hornidurarako antolamendu-egitura, gaitasuna eta erantzuteko denbora (ordutegi arruntan, lanegunetan ordutegi arruntetik kanpo, igande eta jaiegunetan, aparteko beharrianen kasuan, larrialdietan, etab.)
- Kontratua exekutatzeke esleitutako bitarteko materialak (5 puntu)
- Ibilgailuak, goragailuak barne (garabi-kamioia, 4x4 ibilgailuak, etab.), kontratuaren eskura eta kargurik gabe, banaketa hobetzen eta entrega-puntuetarako sarbidea bermatzen dutenak.
- Fabrikatzaileekiko konpromisoak: fabrikatzaileekin sinatutako konpromisoa erantsi.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **10 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Ekipoak entregatzeko gehieneko epea PTPA dokumentuaren 5.2 puntuan («Entregatzeko epea» atalean) mota bakoitzerako ezarritakoa izango da. Entregak Beteluriko EUTan egingo dira, Arrigorriagan, kontrakoa zehaztu ezean, eta Bizkaiko lurraldeko edozein tokitan egiteko agindu ahal izango da.

Entrega atzeratzeak zigorra ekarriko du. Aurreikusitako entrega-epea igaroz gero, % 10eko zigorra aplikatuko zaio eskainitako prezioari. Atzerapen gehigarriko aste bakoitzak % 10eko zigor gehigarria ekarriko du ekipoen ordainketan.

BBUPek EHUren Ur Kontagailuak Probatzeko eta Egiaztatzeko Laborategi bat du (LVEC), Metrologia Egiaztapenerako Organismo Baimendu gisa izendatua. Laborategi horrek entregatutako produktuak ziurtatu ahal izango ditu. Tresnak ez baditu saiakuntzak gainditzen, ekipoa itzuli egingo da, eta lizitatzailerak bere gain hartuko ditu hala saiakuntzaren kostuak nola garraio-gastuak.